

MOZIOA

INFORMAZIO ESKUBIDEAK URRATZEN DITUEN UDALA

2019. urteko urriaren 25ean Hondarribiko Udalean burututako Udalbatzan Abotsanitz Udal Taldeak proposatutako mozio hau eztabaidatu zen:

Udal ordezkari guztiok zinegotzi gisa izendatuak izaten garen unean bertatik eskubide eta betebeharrak batzuen jabe gara. Honela, zinegotzi izateak udalerriko herritarren ordezkari politikoak izatera eramaten gaitu.

Izendapen honek eskubide eta betebeharrak batzuk dakartzkigu ezinbestean. Hala nola:

- Informaziora jotzeko eskubidea eta datu pertsonalen babesa
 - Oinarrizko eskubideak diren Parte hartze politikoa izateko eskubidea eta datuak babesteko eskubidea dira.
 - Zinegotzien aldetik, alde zuzeneko baimenik datu pertsonalak eskuratzeko ahalbidetzen dute DBLO 11. 2 art. eta TAOL 77. Artikuluek
 - Zinegotziak esleituta daukan xede zehatzaren ingurukoak diren eta egokiak eta bidezkoak diren datu pertsonalak eskura daitezke. (DBLO 4. Art)
 - Udalak segurtasun arloan ezarrita daukan protokoloekin bat etorrira egingo da datuen komunikazioa.
 - Zinegotziak datuak isilpean edukitzeko betebeharrak du (DBLO, 10. Art)
- Espedienteetara eta Administrazio Agirietara Jotzeko Eskubidea
 - Parte hartze politikoa izateko eskubidean, informaziorako eskubidean eta gobernu organoak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumenean oinarritzen da.
 - Sarrera irekiko informazioa baimenik gabe lortzeko eskubidea arautzen da AJAren 15. Artikuluan
 - Organo baimen emaileak (alkatea edo gobernu batzarreko burua) arrazoiz erantzun behar du, bost egun naturaleko epean. Hori eman ezean, isiltasun positiboa lehenetsiko da.
- Administrazio Agirien kopia lortzea
 - Kopia lortzeko eskubidea eragiten du informaziorako sarbide libreko kasuak (AJA16.1 artikulua)
- Datuak Isilpean Eduki Beharra
 - Zinegotzietan eskaintzen zaien informazioa, bereziki oraindik erabaki gabe dauden gaien buruzkoa, isilpean gordetzeko betebeharrak dute.
 - Behar honen ez beteetzeak zigorrak batzuen dakartza loturik
- etab.

Hondarribiko Udalean ez dira errespetatzen zinegotzian jardunerako ezinbestekoak ditugun informazio eskubideak. Gainera adierazi beharra dugu Alkate jaunarena dela eskubide hauek bermatzearen betebeharra eta egun dugun egoera honakoa da:

1.- Espedienteak jasotzeko zailtasunak ditugu, nahiz idatzizko eskaerak departamentuetara egin. Erantzun ere egiten ez duelarik.

2.- Hondarribiko Udalak IZFE programaren bitartez Udal espedienteen irismena izateko eskaera egin zen Irailak 19an eta gaur artean inolako erantzunik ez dugu izan..egin zen 2019ko Irailak 19an eta gaur artean inolako erantzunik ez dugu izan.

3.- Udal erregistroko sarrera idatzien informazioa eta kopiak jasotzeko prozedurak ez du funtzionatzen. Eskaerak Idazkari andreak ezarritako moduan egiten ditugun arren, idatzi asko jasotzeko arazoak ditugu. Bereziki, Idazkaritza eta Hirigintza departamentuei dagozkionak jaso gabe geratzen gara.

Beraz, ditugun betebeharrak ezagutuz, egun honetatik aurrera, Hondarribiko Udal zinegotziok egitekoak ditugun eginkizunak egin ahal izateko beharrezkoa eta legezkoa dugun informazio hau helarazteko eskabidea egiten dugu:

- Sarrera erregistroko idatziak eskura izatea
- Espediente eta Administrazio agiriak eskura izatea
- Administrazio agirien kopiak lortzea
- Eta lege ezberdinek ahalbidetzen duten informazio guztiak eskuratzeko eskubidea izatea

EAJ/PNV udal taldeak ondoko mozio alternatiboa irakurri zuen 2019ko udalbatzan:

“Udal Gidaren 145. orrialdean honakook ageri dira zinegotzian eskubide eta betebeharrak tratamendua atalean, besteak beste:

- *Informaziora jotzeko eskubidea eta datu pertsonalen babesa*
- *Espedienteetara eta Administrazio Agirietara jotzeko eskubidea*
- *Administrazio agirien kopiak lortzea*
- *Datuak isilpean eduki beharra*

Kasu guztietarako finkatutako zehaztasunak aletzen hasi gabe, kontuan hartzekoa da oro har oinarritzko eskubideen arteko orekak izan behar duela Udalaren jokabidearen printzipio nagusia, eta horretan eraginkorra izan behar duela. Oreka parte-hartze

politikoa izateko eskubidea, datuak babesteko eskubidea, informaziorako eskubidea eta gobernu-organoak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumena denak gogoan hartuta.

Aurreko guztiari men egitea ez da erraza, eta hori dela eta gaia behar bezala bideratzeko ezinbestekotzat jotzen du Udalbatzak Udal Idazkaritzak lehenbailehen jarraibide-sorta bat idaztea eta udal talde politikoei eta udal departamentuei eskaintzea.

Hori dela eta, zera eskatzen du Hondarribiko Udalak:

1.- Udal Idazkaritzak lehenbailehen jarraibide-sorta bat idatzi eta udal talde politikoekin eta udal departamentuekin partekatzea.

2. Eguneroko jarduna horren arabera izateko ahalik eta epe laburrena erabiltzea”.

Akordiorako asmoarekin bozketa bakarra izatea helburu izanik, Abotsanitz Udal Taldeko bozeramaileak azken proposamen hau soilik bozkatzea proposatuta, aldeko 15 botu eta abstentzio batekin izan zen onartuta.

2020an inolako aurrerapausorik ez zelarik izan, gaia berriro eztabaidatu zen. Abotsanitzen proposamenari EAJ/PNVren kontraproposamena aurkeztu zitzaion. Talde honen eta PSE-EEren aldeko bozkekin ondokoa onartu zen:

“Udal Idazkaritzari eskatzea jar ditzala baliabideak bi hilabeteko epean zinegotzien informaziorako jarraibide-sorta udal talde politikoen esku izateko eta udal departamentuekin partekatu ahal izateko”

Beste urtebete beranduago, aldiz, legealdi hasierako egoera berdinean jarraitzen dugu udal zinegotziok:

- **Informazio eskubidea urratuta dugularik.**
- **Udalbatzan adostutako bi puntuetatik bakarra ere ez delarik bete.**

Udal jardunean ezinbesteko tresna informazioa izanik, gardentasunaren erakusle delarik eta ezinbesteko oinarri demokratikoaren isla izanik, Hondarribiko Udal zinegotziok egitekoak ditugun eginkizunak egin ahal izateko beharrezkoa eta legezkoa dugun informazio hau helarazteko eskabidea egiten dugu:

- Sarrera erregistroko idatziak eskura izatea
- Espediente eta Administrazio agiriak eskura izatea
- Administrazio agirien kopiak lortzea
- Sistema elektronikoko bidez itxita dauden espediente administratiboen kontsultarako baliabideak jartzea
- Eta lege ezberdinek ahalbidetzen duten informazio guztiak eskuratzeko eskubidea izatea

Hondarribia, 2021eko Urriak 22

Abotsanitz Udal Taldea